

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

4249

EBAZPENA, 2022ko irailaren 16koa, Lehiaren Euskal Agintaritzako presidentearena, zeinaren bidez hutsik uzten baita Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketa-eremuetan prestakuntza jasotzeko beken deialdia.

Lehiaren Euskal Agintaritzako presidentearen 2022ko ekainaren 28ko Ebazpenaren bidez argitaratu ziren Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketa-eremuetan prestakuntza jasotzeko beken oinarriak eta deialdia. Ebazpena 2022ko uztailaren 20ko EHAA-n argitaratu zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, beka eskatu zuen pertsona bakarrek eskaerari uko egin zion.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Eskabideari uko egin zaiola adieraztea, jarraian azaltzen den arrazoia dela medio: ***3312** interesdunak eskatuta.

Bigarrena.— Hutsik uztea Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketa-eremuetan prestakuntza jasotzeko beken 2022ko ekainaren 28ko deialdia, ez baita aurkeztu ezarritako baldintzak betetzen dituen eskabiderik.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Lehiaren Euskal Agintaritzako presidenteari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bilbao, 2022ko irailaren 19a.

Lehiaren Euskal Agintaritzako presidentea,
ALBA URRESOLA CLAVERO.